

# M31 GREBA

## -ZERBITZU PUBLIKOAK-

### KALTETUENAK KALTETUZ

Maiatzaren 31ko grebara deitu dugu arrazoi asko dugulako hori egiteko, eta ez dira arrazoi korporatiboak.

Egia da funtzionariok erosteko ahalmena galtzen ari garela, gure ordutegiak eta lan-kargak handitzen dituztela, lanpostuak amortizatzen direla eta ordezkapenak betetzen ez direla. Egia da, baita ere, aipatutakoak ondorio larriak dituela: langabeziaren hazkundera eta zerbitzu publikoen hondatzea, zerbitzu horien kalitatea nabarmen jaitsiz.

Hori guztia egia da eta, berez, larria da. Hala ere, larriena da neurri horiek kaltetuenen aurka bideratzen direla: osasun kopagoak eta hezkuntza tasen igoerak gutxien dutenak jipoitzen dituzte batez ere. Sektore zabalak (paperik gabekoak, gazteak...) osasun babesik gabe utzi nahi dituzte. Gero eta familia gehiago langabezian dago, inongo baliabide ekonomikorik gabe, etxe-hustuketak egunerokoak dira, menpekotasunerako laguntzak murrizten ari dira, oinarritzko-errenta gero eta eskuraezinago da...

Aldi berean diru publiko eskerga bideratzen da bankuen zuloak estaltzera, zeharkako zergak eta lansarien gainekoak handitzen dira, korrupzioa agerikoa da... hitz batean: gizarte desberdintasunak gero eta nabarmenagoak dira eta gure gizartea gero eta bidegabekoagoa.

Gizarte osoa pobretzen ari dira eta erantzun egin behar dugu. Baina gure txirotze erlatiboak ezin du txirotasun larriena ezkutatu. Bidegabekeria nabarmenenak eta biktima ahulenak lehen planoan kokatu behar ditugu, beraiek baitira gaur egungo murrizketek gehien kaltetzen dituztenak.

Zerbitzu publikoetan, eta batez ere hezkuntza eta osasuna bezalako sektore sentikorretan, greba egiptano asko pentsatu behar da. Baina egungo egoera gero eta sektore zabalagoak pairatzen dute, arlo desberdinetan (osasuna, hezkuntza, lana, etxebizitza, menpekotasuna...) eta erantzun berezia beharrezkoa da, mobilizazio irmorik gabe, murrizketak areagotu egingo direlako.

Horrexegatik 31ko greban parte hartzera deitzen zaituztegu, gure eskubideak auzitan daudelako, botere ekonomikoa gero eta suntsikorragoa delako, botere politikoak aurre egiten ez diolako, norabidea aldatu behar dugulako beste eredu baterantz, baliabideak eta lana banatuz, murrizketak beharrezkoak ez diren gastuei bideratuz, desberdintasunak gutxituz eta kontuan hartuz pertsona ororen bizi-premiak.

Hau guztia dela eta, langile edo erabiltzaile gisa, greba honetan parte hartzeko animatzen zaitugu.



## Manifestazio bateratua, 12etan Autobusetan